



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA

23. HILABETEKO IRUZKINA

> 2011ko Ekaina





GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA

> Aurkezpena

Ohar honen bidez, Gipuzkoan eta Europar Batasunean emakume eta gizonen arteko berdintasuna aztertzen da laburpen moduan.

Azterketa egiteko orduan, Europar Batasunean emakume eta gizonen arteko berdintasun politiken jarraipena egiteko Europako Batzordeak hautatutako erreferentziako adierazleak hartu dira kontuan. Era berean, Ogasun eta Finantza departamentuak horretarako landutako adierazleak txertatu dira, PFEZan aitortutako errentei dagokienez.

Desberdintasun adierazleak lau esparrutan egituratzen dira: errentak, erabakitzeko esparruak, prestakuntza eta enplegua. Azterketa portzentajeen arabera (emakumeen parte-hartzea) eta aldearen arabera (adierazle beraren inguruan emakume eta gizonen arteko desberdintasuna portzentajezko puntuetan) egin da.

Lehen epigrafean Gipuzkoaren eta Europar Batasunaren arteko benchmarking azterketa egin da; jarraian, Gipuzkoako adierazle esanguratsuenen bilakaera jasotzen da.

> Orokorrean, Gipuzkoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunekoaren antzekoa da

Benchmarking-eko 15 adierazleek Gipuzkoan eta Europar Batasunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoera antzekoa dela adierazten dute.

Gaingiroki, Gipuzkoako egoeran desberdintasun txikia dagoela jasotzen dute lau adierazlek, zortzik antzekoa dela eta hiruk desberdintasun handiagoa dagoela. Horri lotuta, Gipuzkoan emakumeen errentak gizonezkoenak baino askoz ere baxuagoak direla azpimarratu behar da; Europar Batasunari dagokion informazioa ez dago eskuragarri.

Azterketak jasotzen dituen arlo desberdinei dagokienean, Gipuzkoan ardura politikoko karguetan emakumeen presentzia handiagoa dela nabarmentzen da; enpresa-karguetan, aldiz, zertxobait baxuagoa da.

Prestakuntzaren alorrean ere egoera antzekoa da. Horrela, errenten kasuan Gipuzkoako emakumeen artean pobrezia eragina zertxobait txikiagoa da eta emakumeen kalterako aldea handiagoa dela ikus daiteke.

Eta enpleguari dagokionez, lan-merkatu ordainduko emakume aktiboen enplegu-tasa zertxobait altuagoa da Gipuzkoan eta langabezian eragin txikiagoa du; hala ere, Gipuzkoan genero-aldea askoz ere handiagoa da adinez nagusienak diren pertsonen artean.

Azkenik, lanaldi partzialeko enpleguaren eskuragarritasun urria azpimarratzen da eta Europar Batasunarekin desberdintasun handiak daude.



GIPUZKOA ETA EUROPAR BATASUNEN GENERO ADIERAZLEAK

Adierazlea	Gipuzkoa	EB-27	Benchmark.
ERRENTAK			
Errenta aitortuaren aldea (pp)	-24,3	:	:
Lan-errentaren aldea (pp)	-32,1	:	:
Pobreziaren eragina emakumeengan (%)	4,8	5,4	=
Pobreziaren eraginaren genero-aldea (pp)	2,0	0,2	-
ERABAKITZEKO ESPARRUAK			
Emakumeak Legebiltzarrean (%)	48,0	24,0	+
Emakumeak Gobernuan (%)	50,0	27,0	+
Enpresetako goi-kargudun emakumeak (%)	29,0	33,0	=
PRESTAKUNTZA			
Bigarren mailako ikasketak dituzten 20-24 urte bitarteko emakumeak (% Euskadi)	83,4	81,4	=
Unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten emakumeak (%)	58,4	59,4	=
ENPLEGUA			
Enplegua duten 16-64 urte bitarteko emakumeak (%)	61,0	58,2	=
16-64 urte bitarteko enpleguaren genero-aldea (pp)	12,7	11,9	=
Enplegua duten 55-64 urte bitarteko emakumeak (%)	34,0	38,6	=
55-64 urte bitarteko enpleguaren genero-aldea (pp)	27,1	16,0	-
Emakume langabetuak (%)	7,1	9,6	+
Langabeziaren genero-aldea (pp)	-0,5	-0,1	=
Lanaldi partzialeko enplegua duten emakumeak	16,9	31,5	-
Lanaldi partzialeko enpleguaren genero-aldea	15,0	23,2	+




> Emakumeen errenta gizonen errentaren % 76 da

2009ko ekitaldiari dagokionez, PFEZa aitortu duten emakumezko gipuzkoarrek aitortutako batez besteko errenta 20.618 euro da, hau da, gizonen errentaren % 76.

Azken urtean aldea arinki murriztu da, bai emakumeen errenta handitu delako eta baita gizonen errentek beherakada arina jasan dutelako ere. Termino absolutuetan, desberdintasuna urteko 6.629 euro da.

Emakume eta gizonen errentak




Aipatutako ekitaldiari dagokion PFEZaren banakako aitopenen batez besteko errenta
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza departamentua.



Lanetik eratorritako errentei dagokienez, genero-aldea handitu egin da; horrela, emakumeen errenta gizonen errentaren % 68 da, eta termino absolutuetan, desberdintasuna urteko 8.119 euro da. Azken urteotan bateratzeari begirako joera oso arina nabarmendu daiteke.

Emakume eta gizonen lan-errentak



Aipatutako ekitaldiari dagokion PFEZaren banakako aitortpenen batez besteko lan-errenta
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza departamentua.


Bestetik, Euskadi osoari begira, INEren soldata estatistikak emakumeen batez besteko soldata gordina gizonezkoei dagokienaren % 78 dela islatzen du. Datua 2009koa da.



- > Ardura politikoa duten emakumeak: % 50 Foru Aldundian, % 48 Batzar Nagusietan eta % 28 alkatetzetan

Legegintzaldi hasi berrian Batzar Nagusietako kideen artean, % 48 emakumezkoak dira. Parte-hartze tasa hau aurreko legegintzaldiaren oso antzekoa da, aurreko hartan hazkunde handia izan zuelarik.

Emakumeak eta gizonak Batzar Nagusietan



Europako herrialdeetako parlamentu nazionaletan emakumeek duten presentzia kasu gehienetan Gipuzkoakoa baino askoz ere baxuagoa da; EB-27 osoaren batez bestekoa % 24 da. Eusko Legebiltzarrari dagokionez, emakumeen presentzia % 44koa da.


Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuari begira, zortzi diputatuen artean erdia emakumezkoa dira; horrela, aurreko legegintzaldiekin alderatuta, igoera nabari da. Emakumeen parte-hartzea, hurrenez hurren, % 36 eta % 18koa izan zen. Europar Batasunean emakumeen parte-hartzea txikiagoa da; batez beste % 27 da.

Zuzendaritza Nagusiei dagokienez, amaitu berri den legegintzaldian emakumeen presentzia % 32koa izan zen; aurreko legegintzaldiarekin alderatuta, hazkunde handia izan da, parte-hartzea % 15 izan baitzen.



Gipuzkoako alkatetzetan, berriz, emakumeen presentzia Foru Aldundian baino murriztagoa da. Berez, 88 udalerrietatik emakumeek 25 udalerri zuzentzen dituzte; portzentajeen arabera, udalerrien % 28a. Portzentaje hau aurreko legegintzaldiari dagokiona baino portzentajezko hiru puntu handiagoa da.

Emakumeak eta gizonak alkatetzetan





> Lanerako adina duten emakumeen % 61ak enplegu ordaindua du.

Gipuzkoako emakumeen enplegu-tasa, hau da, lan egiteko adinean dauden emakumeen artean enplegua duten emakumeen portzentajea, % 61 da. Hazkunde handiko garaia izan ondoren, tasa honek egonkortzeko joera izan du azken urteotan. Horrela, mende hasieratik 2008. urtera arte, emakumeen enpleguaren igoeraren ondorioz, enplegu-tasa portzentajeazko 15 puntu handitu zen (% 47tik % 62ra).


Tasa hau Europar Batasuneko tasa (% 59) baino zertxobait handiagoa da; hala ere, herrialde aurreratueneen tasak baino baxuagoa da. Alegia, Danimarkak, Suediak eta Holandak % 70aren inguruko tasak dituzte.

Adinez nagusia den taldearen kasuan, 55 eta 64 urte artekoan, Gipuzkoako tasa Europar Batasuneko batez bestekoa baino baxuagoa da, % 34 eta % 39, hurrenez hurren.

Enpleguaren inguruko genero-aldeak murrizketa oso nabarmena izan du azken urteotan; hala ere, azken urtean geldotu egin da eta % 13an kokatu da, Batasunari dagokionarekin (% 12) bateratzera iritsi gabe.

Emakume eta gizonen enplegu-tasa

(15 urte eta gehiagoko biztanleen %)



Iturria: Eustat.



> Emakumeen % 7a langabezian


Gipuzkoako emakumeen % 7a langabezian dago, eta 2006 eta 2007 urteetan lortutako gutxieneko mailak handitu egin dira.

Gipuzkoako zenbatekoa Batasunaren batez bestekoa (% 10) baino baxuagoa da. Horrela, handitu bada ere, Gipuzkoan emakumeen langabezia-tasa % 7,1 da, eta Europako batez bestekoaren (% 9,6) azpitik dago oraindik. Hala ere, Austria eta Holanda bezalako herrialdeetan ez da % 5era iristen.

Hamarkadako lehen urteetan emakumeen langabezia-tasa gizonen bikoitza zen, baina azken bi urteotan murriztu egin da, eraikuntza eta industria jardueretan modu sakonean eragina izan duen krisi-testuingurua kontuan hartuta.

Emakume eta gizonen langabezia-tasa

(15 urte eta gehiagoko biztanleen %)





> Informazio gehiago

- Report on Progress on Equality between Women and Men in 2010 (Comisión Europea)
<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=418>
- Estrategia para la igualdad entre mujeres y hombres 2010-2015 (Comisión Europea)
<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0491:FIN:ES:PDF>